

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2022 Foru Dekretua, abenduaren 20koa. Onestea Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretua aldatzea

Zerga berezi eta ingurumen zerga berriak sortzeak, zerga horien kudeaketan egindako aldatetekin batera, eta zerga horien kudeaketa lanak egiteko behar den espezializazio tekniko gero eta beharrezkoagoak eskatzen dute Zerga Berezien eta Ingurumen Zergen Atal berria sortzea Ogasun Zuzendaritzako Zeharkako Zergen Zerbitzuari atxikita.

Aurretik azaldutakoaren arabera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretua aldatu behar da, Zerga Berezien eta Ingurumen Zergen Atal berria sortzeko Ogasun Zuzendaritzako Zeharkako Zergen Zerbitzuaren barruan eta dagozkion eginkizunak esleitzeko.

Foru dekretu hau izapidetzeko, xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eta genero inpaktuaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinaren 3. artikuluan jasotako araupetze onaren printzipioak bete dira. Hala, azaldutako aurrekarietan arrazoitu da arautu beharra dagoela. Gainera, jardun proportzionatua da, lortu nahi den xedea lortzeko ezinbestekoa den gutxienera mugatzen baita, hau da, Zerga Berezien eta Ingurumen Zergen Atal berria sortzera.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu; izan ere, edukia antolamenduari baino ez dagokionez, posible da jendaurrean jartzeko izapidea ez gauzatzea. Edonola ere, onartu bezain laster ALHAOn argitaratzeko aginduko da.

Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatutako arautzea, duen izaera dela-eta, ez dakarke herritarrei ez administrazio karga osagarririk, ez premiazkoa ez denik.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako txostena.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatu titularrak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Bakarra. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretua.

Aldaketa hauek sartzen dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 9ko 12/2016 Foru Dekretuan:

Bat. Aldatu egiten da 4. artikuluko 6. zenbakia. Hona hemen aurrerantzean izango duen testua:

“6) Zeharkako Zergak.

Zerbitzu horri atxikita daude atal hauek:

– Ondare eskualdaketen, egintza juridiko dokumentatuen, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergak.

- Balio erantsiaren gaineko zerga.
- Zerga bereziak eta ingurumen zergak”

Bi. Aldatu egiten da 16. artikulua 3. zenbakiko lehenengo paragrafoa eta 4 zenbakia eranstean zaio artikulua horri. Honela gelditzen dira idatzita:

“3. Zerbitzu horren mende dago Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Atala, eta atal horri dagozkio eginkizun hauek:”

“4. Zerbitzu horren mende dago Zerga Berezien eta Ingurumen Zergen Atala, eta atal horri dagozkio eginkizun hauek:”

a) Aurkeztutako aitorpenak aztertzea eta horietan jasotako datuak egiaztatzea eta, behar izanez gero, zabaltzeko, hutsak zuzentzeko edo atal horri esleitutako zergak egiaztatzeko beharrezkoak diren ziurtagiriak aurkezteko eskatzea.

b) Behin behineko likidazioak egitea, zergadunek emandako eta Administrazioak lortutako informazioa alderatzearen ondoriozkoak, eta behin betikoak.

c) Bulego kudeatzaileak egintzen aurka aurkeztutako berraztertze errekurtsoak izapidetu eta ebaztea.

d) Zerga Berezien eta Ingurumen Zergen lurralde erregistroetan inskribatzeko eskaera espedienteen ebazpena izapidetu eta proposatzea.

e) Zor ez diren diru sarreren itzulketaren espedienteen ebazpena izapidetu eta proposatzea.

f) Tributuak kudeatzeko beharrezkoak diren aitorpen ereduak aztertu eta prestatzea.

g) Subjektu pasiboak kontrolatzea zerga betebeharrak betetzeari dagokionez eta egokiak diren errekerimenduak egitea.

h) Bere eginkizuna betetzeko behar dituen erroldak eta erregistroak mantendu, berrikusi eta kontrolatzea, Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuarekin eta Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuarekin koordinatuta.

i) Bere eskumeneko gaietan zerga kontsultak erantzutea.

j) Zerga aitorpenak egiteko dauden laguntza programak berrikusi eta eguneratzea”

Hiru. Argitaratzea, foru dekretu hau onetsi ondoren, aldaketa hauek onetsi ondorengo organigrama berria, Arabako gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren 1/2017 Foru Araua aplikatzearen ondoriozko publikitate aktiboko indarreko eskakizunei jarraituz.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA

Finantza eta Aurrekontu zuzendaria

EDUARDO LÓPEZ DE AGUILETA DÍAZ